

## 15.- GUARDETXEA

Kokapena: 112-4 mapa

Diapositivak: 27-28

Koordenatuak: 30 522 233 E  
47 60 925 N

Neurriak: zalantzazkoak

Ezaugarriak: Aldundiarena. Bertan basozain lana egiten zuen Legutioko Andres delako bat bizi zen.

Eraikuntza gerra garaian bota zuten. Zigoitia Udalaren lurra.

Forma laukizuzena eta harrizkoa zen, baina gaur egun harrizko hormen zati txiki batzuk baino ez dira geratzen, eta landaretzak ezkututzen du. Harria sakabanatuta dago, jendeak hoberena eraman eta gainerakoa barreiatu baitzuen. Horma batzuek 2,5 m altuera dute oraindik. Oketako pinudian dago. Korta zeukan, atxikitua.